

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

446/2019 Foru Agindua, urriaren 30ekoa, onesten duena Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, zergak ikuskatzea - zerga ikuskatzailea) sartzeko hautaketa prozesuaren lehen probaren eguna eta lekua iragartzea, zeinaren deialdia otsailaren 18ko 96/2019 Foru Aginduaren bidez egin baitzen

Gobernu Kontseiluaren abenduaren 12ko 750/2017 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako Foru Aldundiaren 2017rako Administrazio Orokorren enplegu publikoaren eskaintzari. Bestetik oinarri orokorretako 10.2.2 oinarrian xedatutakoaren arabera, Foru Agindu bidez lehen probaren lekua, eguna eta ordua argitaratuko dira ALHAOn.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hor. Bestalde, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zen. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Iragartzea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio bereziko eskalako, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, Zergak Ikuskatzea (Zerga Ikuskatzailea) sartzeko hautaketa prozesuaren lehen proba egiteko eguna, lekua eta ordua hauek izango direla:

- Larunbata, 2019ko azaroaren 16ean, 9:30etan.
- UNEDeko egoitza Pedro Asua kalea z/g, Gasteiz (Araba).

Bigarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan —urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik— xedatutakoaren arabera.

Gasteiz, 2019ko urriaren 30a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR